

1 I. ERANSKINA - HARREMANETARAKO FORMULARIOA**Faktura elektronikoa Osakidetza/Osateken ezartzea****Harremanetarako formularioa hornitzaileentzat**

Osakidetza hornitzaileentzako arreta-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko bidali beharreko informazioa:

1. Hornitzailearen datuak

Sozietatearen
izena/izendapena: _____
Enpresaren IFZ/IFK: _____
Harremanetarako pertsona: _____
Telefono-zenbakia: _____ Helbide elektronikoa: _____

2. Harremanetan jartzeko arrazoia (markatu X batekin):

Kontsulta Gertakaria

3. Tipologia (markatu X batekin):

<input type="checkbox"/>	Zerbitzuaren nolakoa eta eremua (legedia, inguru juridikoa...). <i>Ikusi gehiago.</i>	<input type="checkbox"/>	Fakturen gestioa atariaren bidez (url helbidea, ziurtagiria, sinadura, bidalketa...). <i>Ikusi gehiago.</i>
<input type="checkbox"/>	Osakidetza egitura eta zentroak (DIR3...). <i>Ikusi gehiago.</i>	<input type="checkbox"/>	Fakturen gestioa web-zerbitzuaren bidez (bidalketa, url helbidea, ziurtagiria, sinadura...). <i>Ikusi gehiago.</i>
<input type="checkbox"/>	Fakturak egitea eta prestatzea (datuak balioztatzea, aplikazioak...) <i>Ikusi gehiago.</i>	<input type="checkbox"/>	Bestelakoak: (zehaztu).....

4. Kontsultaren/gertakariaren deskribapena:

Bidali galdetegia beteta honako helbide honetara:
fakturaelektronikoa.facturaelectronica@osakidetza.eus

2 II. ERANSKINA - OHIKO KONPONBIDEAK

Zerbitzuaren nolakoa eta eremua (legedia, inguru juridikoa...).

1. Osakidetzari faktura elektronikoak egiteko betebeharra 5.000,00 euro baino gehiagoko fakturei bakarrik dagokie (BEZ barne). Faktura txikiagoak, berriz, aipatutako legea indarrean sartu baino lehenagoko ohiko bideetatik bidal daitezke.
2. Fakturazio elektronikoaren legeak hornitzaile nazionalai eta atzeritarrei eragiten die.

Osakidetzako egitura eta zentroak (DIR3...).

3. Osakidetzako zentroetako DIR3 kodeei buruzko informazioa "Direcciones y códigos DIR3"/"DIR3 kodeak eta helbideak" izeneko excel fitxategi batean aurki daiteke, hemen: Enpresentzat > Fakturazio elektronikoa > Zerbitzuaren deskribapena.
4. DIR3 kodeen informazioari dagokionez, gogoan izan ez direla DIR3 kodeak sartu behar soilik; erabili beharreko 3 DIR3 kodeetako bakoitzaren helbidearen datuak ere sartu behar dira. Horretarako, informazio hori aurkitu behar duzu "Direcciones códigos DIR3"/"DIR3 kodeen helbideak" fitxako DIR3 kodeen excel dokumentuan.
5. Osakidetzaren webgunean, "Nire zentroak" izeneko atal bat dago. Bertan, unitate tramitatuak bakoitzaren osaeraren inguruko informazioa dago. Informazio hori erabiliz gero DIR3 kodeen excel dokumentuarekin batera, errazagoa izango da Osakidetzari bidali beharreko faktura bakoitza sortzeko datu zuzenak identifikatzea.
6. DIR3 kodeak gaizki sartuz gero, faktura elektronikoa berehala baztertuko du Osakidetzako zentroak.

Fakturak egitea eta prestatzea (datuak balioztatzea, aplikazioak...)

7. <http://www.facturae.gob.es/formato/Paginas/utilidades-online.aspx> webgunean, balioztatzaile doako bat duzu eskuragarri. Horren bidez, ziurta dezakezu ea zure fakturen sinadura eta formatua zuzenak diren. Aplikazio horrek erabiltzaileentzako arreta-zerbitzu propio bat du, Osakidetzako euskarri-zerbitzutik kanpo dagoena.
8. Facturae-ko formatu estandarrean, espedienterako etiketan, 20 kode sartzen dira, baina Osakidetzako espediente-kodeak luzeagoak izaten dira. Horretarako zehaztutako eremuan zenbakiaren azken karaktereak sartzea gomendatzen da, barra bidezko bereizketa kontuan hartu gabe (ikus: Ohiko galderak > Fakturak bidaltzea). Gero, datu osagarrietarako prestatutako lekuan sartu behar da datua osorik.
9. Interneten, badira aplikazio doako batzuk faktura elektronikoak egiteko. Ezagunenetako batzuk FACe eta eF4ktur dira. Osakidetzak ez du gomendatzen bat beste batzuen aurretik.

Fakturen gestioa atariaren bidez (url helbidea, ziurtagiria, sinadura, bidalketa...).

10. Osakidetzako faktura elektronikoen atarira sartzeko, ziurtagiri baliozko bat eduki behar da instalatuta nabigatzailean. Interneten, laguntza-webgune asko aurkituko dituzu ziurtagiria konfiguratzeko aukeren inguruan, darabilzun nabigatzailearen arabera.
11. Bidalitako fakturak ez badituzu ikusten "Nire fakturak" izeneko atalean, ziurta ezazu atarira sartzeko erabiltzen duzun ziurtagiriaren IFZ eta bidalitako fakturretakoa berbera dela. Osakidetzako atariaren segurtasun-politika dela eta, ezin izango duzu ikusi zure ziurtagiriaren IFZ ez duen fakturarik.
12. 'ZAIN' jartzen badu errore batean, fakturaren sinaduran okerren bat dagoen seinale. Segurtatzeko ea faktura ziurtagiri baliozko batekin sinatuta dagoen, honako url honetan eskuragarri dagoen faktura-balioztatzaile doakoa erabil dezakezu: <http://www.facturae.gob.es/formato/Paginas/utilidades-online.aspx>.
13. Sinadura-erroreak agertuz gero eF4ktur aplikazioarekin egindako fakturetan, desmarka ezazu "Denbora-zigiluaren sinadura eta baliogabetze-egoera" aukera aplikazio horren Sinaduraren Konfigurazio Aurreratuaren atalean, eta, jarraian, egin eta bidali berriro fakturak.
14. Baliteke fakturak baztertu gisa agertzea Osakidetzaren atarian. Hori zergatik gertatu den argitzeko, fakturak zer zentrotarako izan, horrexekin jarri beharko duzu harremanetan zuzenean.
15. Atariak nabigatzaile hauek onartzen ditu: Internet Explorer 9 edo goragokoa, Google Chrome eta Mozilla Firefox. "Server Error: restart aplicacion" mezua agertzen bazaizu, horrek beharbada esan nahi du nabigatzaile horietakoren bat erabili beharko duzula edo, areago, erabiltzen ari zaren hori eguneratu behar duzula, egiaztatze aldera arazoa ez duela horrek eragin.

Fakturen gestioa web-zerbitzuaren bidez (bidalketa, url helbidea, ziurtagiria, sinadura...).

16. Web-zerbitzua beste aukera bat da faktura elektronikoak bidaltzeko, automatikoki bidali ere. Izan ere, webgunearen bidez, eskuz igo behar dira fakturen fitxategiak, lehenagotik eginak.
17. Fakturak web-zerbitzuaren bidez bidali ahal izateko alta eskatzeko, honako hauek bete eta bidali behar dituzu eranskin gisa: batetik, Osakidetzako webgunean eskuragarri dagoen formularioa, eta, bestetik, zure ziurtagiriaren zati publikoa (baldin eta ez badu hirugarren batek bidali behar).